

Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordea


2020ko abenduaren 2ko saioko agiria



Data: 2020-12-02

Hasiera ordua: 13:30 **Amaiera ordua:** 14:15

Batzordeko kideak:




Pagola Tolosa, Mikel Herritarren Partaidetzako zuzendari nagusia ----- Calvo Garmendia, Itziar Herritarren Partaidetzako zerbitziburua	Crespo Rico, Miguel Angel Lurralde antolaketako zuzendari nagusia
Telleria Etxeberria, Maria Jose Kulturako zuzendari nagusiak Mikel Pagola Tolosaren esku utzi ditu bere ordezkari eta botoa.	Corchon Alvarez, Jose Enrique Finantza eta aurrekontuko zuzendari nagusia Ez du parte hartu.
Manotas Rueda, Goizeder Berrikuntzako eta eraldaketako zuzendari nagusia	Uribetxeberria Barrena, Mikel Kudeaketa eta plangintzako zuzendari nagusia
Azpiroz Otegui, Jon Ander Landa udalerrien garapenerako zuzendari nagusia	Rodrigo Montalvo, Txaro Mendekotasunaren eta Desgaitasunaren arretako zuzendari nagusiak Mikel Pagola Tolosaren esku utzi ditu bere ordezkari eta botoa.
Pedreira Lanchas, Monica Ingurumeneko zuzendari nagusia Ez du parte hartu.	Zurutuza Mujika, Sebastian Estrategiako zuzendari nagusia

Landutako gaiak

Aurrekontu Irekiak 2021

Herritarren Partaidetzako 5/2018 Foru Arauak, bere 40. artikuluan arautzen du **Herritarren Partaidetzako Foru Batzordearen helburua** izango dela Herritarren Partaidetzaren arloan Aldundiak ezartzen dituen jarduerak koordinatzea eta, zehatzago, foru arau horretan zehazten diren prozesuak garatzeko jarduerak koordinatzea, partaidetzaren arloan departamentuek garatzen duten jardueraren koherentzia eta osagarritasuna lortzeko.

Arau berak, bere 26. artikuluan ezartzen du Gipuzkoako Foru Aldundiak, dituen eskumenen eremuan, herritarren parte hartzeko prozesuak ezarriko dituela, hala nola, **partaidetzazko aurrekontuak**, Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrekontuetako alderdi batzuk lehenesten laguntzeko, herritarren partaidetza maila handitzeko eta hobetzeko.




Partaidetza Programaren aurkezpena

Hasteko, Mikel Pagola batzordeburuak 2021eko Aurrekontu Irekien protokoloa aurkeztu du, aurreikusten diren faseak eta kronograma azalduz. (aktari erantsita bidaltzen dizuegu 2021eko Aurrekontu Irekien Protokoloa).

Ondoren, aurtengo prozesuak izango dituen berrikuntza nagusien inguruko zertzelada batzuk eman ditu:

- Berariazko lan-talde baten osaera: Aurrekontu Irekiak lantzeko osatuko da eta departamentu bakoitzeko ordezkariak gain, komunikazioko arduradunak, zeharkako gaietako arduradunek eta partaidetzako zerbitzuburuak hartuko dute parte.
- Herritarren Partaidetzako 5/2018 Foru Arauak araututako moduan, aurreko martxan jarri den Gizarte Kontseiluak ere prozesuan zehar eginkizun garrantzitsuak izango ditu.
- Covid-19ak sortutako osasun krisi egoerak ere eragina izango du aurrekontu irekien prozesuan. Aukera hau baliatu nahi da egoera honek sortu dituen beharren inguruan herritarrekin pedagogia egin eta horren inguruko hausnarketa eta proiektuak bultzatzeko.
- Proposatzen diren aurreko aurreko topaketa eta saioekin malguak izan beharra dago eta aldaketak izan ditzaketela aurreikusitako krisiak sortzen duen ziurgabetasuna dela eta.



2021eko Aurrekontu Irekien protokoloaren onarpena

Foru Batzordeko kideek aurrez 2021eko Aurrekontu Irekien protokoloa jaso ez dutenez, akta honekin batera helaraziko zaie elebitan protokolo proposamena aztertzeko aukera izan dezaten eta epe bat emango zaie ekarpen eta egokitzapenak proposatzeko.

Hurrengo urratsak

2021eko Aurrekontu Irekien Protokoloa dela eta Foru Batzorde honetan egingo diren hurrengo urratsak hauek dira:

- Bidali den 2021eko Aurrekontu Irekien Protokoloa aztertu eta ekarpenak proposatzeko epe bat izango dute kide guztiek: **abenduaren 16a**.
- Epe hori igaro ondoren, ekarpen edo proposamen zehatzik ez badago 2021eko Aurrekontu Irekien protokoloa onartutzat emango da.
- Gizarte Kontseiluari aurkeztuko zaio protokoloa eta ekarpenak jasoko dira.
- Webgunean eta egoitza elektronikoan argitaratuko da herritarren ekarpenak jasotze asmoz.
- Jasotako ekarpen guztiekin Partaidetzazko Foru Batzordeak onartuko du behin betiko protokoloa.